

LAN POLTSA

OINARRI ARAUTZAILEAK

BERRIKUNTZA + IKERKETA + OSASUNA EUSKO FUNDAZIOAREN (BIOEF) LAN POLTSA BATEN SORRERA ETA FUNTZIONAMENDUA, BIOBANKURAKO DNA LABORATEGIKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAK KONTRATATZEKO

ERREF.: 2021_BOLSA-TEC.SUP.ADN

Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioak (BIOEF) Euskadiko osasun sisteman berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea du xede, osasun sistema horren esku hartze gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa, biztanleriaren osasunaren babeserako. Halaber, Fundazioak osasun arloko ikerketan, garapenean eta berrikuntzan parte hartzen duten sektoreen lankidetzarako, komunikaziorako eta kooperaziorako esparrua ezartzen du, maila guztietan (autonomia erkidegoa, estatua eta nazioarteko mailan), Fundazioaren xedea hobe bete ahal izateko. BIOEFen eginkizunen artean daude Euskal Biobankuaren (aurrerantzean, "Biobankua") funtzionamenduaren erantzukizuna, Osakidetzan eta Osasun Sailean sortutako lagin biologikoen eta horiei lotutako datuen kudeaketaren ardurarekin, ikerketa helburuetarako.

2015eko uztailaren 13ko AGINDUAK, Osasuneko sailburuarenak, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren gobernu organoak Euskal Biobankuaren inguruan hartutako akordioak argitara ematekoak (143. EHAA, 2015eko uztailaren 30ekoa), xedatutakoaren arabera, Euskal Biobankua nodoek osatutako sareko biobanku gisa antolatzen da, bi nodo motarekin:

- Nodo koordinatzailea, zuzendaritza zientifikorako eta kudeaketa administratiborako.
- Laginak kudeatzeko nodoak, laginak prozesatu, jaso eta gordetzeko. Nodo horiek unitateak edo zerbitzuak izango dira osasun arloan eskumena duen sailari atxikitako erakundeen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa egituratzeko araudian ezartzen denaren arabera.

Lan poltsa honen sorrera justifikatzen du laginak kudeatzeko nodei lotutako aldi baterako lanpostuak betetzeko beharrak, betiere estaliko den beharra asebetetzeko eskatzen den titulazio mailaren arabera eta publizitatearen, berdintasunaren, norgehiagokaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarritutako prozedura bati jarraituta.

ARAU OROKORRAK

Lehenengoa. - Lan poltsaren xedea.

Deialdi honen xedea da lan poltsa bat osatzea BIOEFen aldi baterako kontratazio beharrei erantzuteko, Biobankuko DNA laborategiko goi mailako teknikarien postuetarako. Lan poltsaren eraketa oinarri arautzaile hauetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen da lanpostu espezifikoaren hornidura, dagokion deialdiaren oinarrien arabera arautuko duena.

Bigarrena. - Kontratuen iraupena, jardunaldia eta soldata.

Hautaketa prozesu honen ondorioz gauzatzen diren kontratuak kontratazio beharra sortu duen egoeraren arabera egokiena den modalitatearekin gauzatuko dira, bitarteko kontratuetatik edo lanen metaketatik eratorritako langile beharrak estalita, aldi baterako kontratu bidez, momentu bakoitzean aplikagarria den araudiaren arabera.

Lan kontratuan zehaztuko dira egingo den jardunaldia eta beteko den lanpostuaren identifikazioa.

Kontratuak izan ahalko dira lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak, azken kasu honetan ordainsarian dagokion murrizketa aplikatuta.

Urteko soldata gordina hogeita bat mila berrehun eta hirurogeita hamazazpi eurokoa (21.277,00 €) izango da. Zenbateko hori urtero eguneratuko da, BIOEFen langileen oinarritzko soldaten multzoaren gainean aplikatzen den portzentaje berean, egokia denean.

Hirugarrena. - Hautagaien betekizunak.

Bat. Hautagaiak, hautaketa prozesuan onartuak izateko, bete beharko dituzten betekizunak, prozesura aurkezteko momentuan edo eskabideak aurkezteko epea amaitzean bete beharko dituztenak, hauek dira:

a) Betekizun generikoak:

- Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko herritarra izatea edo, kasuaren arabera, atzeritarrei buruzko legerian xedatzen diren betekizunak betetzea.
- Hemezortzi urte beteta izatea eta, egokia denean, nahitaezko erretiroaren gehienezko adina gainditu ez izana.

- Dagozkion eginkizunak garatzea galarazten dion gaixotasunik edo arazo fisiko edo psikikorik ez izatea.
- Bidezko diziplinazko kaleratze baten objektu izan ez izana.

b) Betekizun espezifikoak:

Hautagaiak laborategi alorreko goi mailako prestakuntza ziklo baten (Lanbide Heziketa - LH) titulua izan beharko du, Hezkuntza Ministerioaren Lanbide Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Katalogo Nazionalaren arabera, jarraian adierazitakoaren artekoa:

- Analisi klinikoetako laborategia edo baliokidea;
- Analisi kimikoak edo baliokidea;
- Analisi bioteknologikoak edo baliokidea;
- Prozesu bioteknologikoen antolaketa eta kontrola eta zerbitzu bioteknologikoen garapena edo baliokidea.

Akreditazio fasean aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, betekizun hauek betetzen ez direla aurkitzen bada, hautagaia kanpo geldituko da automatikoki, akatsa edo gabezia zuzentzeko modukoa bada salbu, oinarri hauetako zortzigarren arauan xedatutakoaren arabera.

Betekizunak ez betetzeak hautaketa prozesutik kanpo gelditzea ekarriko du.

Laugarrena. - Publizitatea.

Oinarri arautzaile hauek Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren webgunean argitaratuko dira, <https://www.bioef.org/eu/>, honako atalean: "[Lan-eskaintzak](#)". Halaber, erakundeak ahalik eta gehien zabalduko ditu bere alorreko ohiko kanalen bitartez.

Bosgarrena. - Jarduketa printzipioak.

Lan poltsara sartuko diren langileen hautaketarako, printzipio hauek errespetatuko dira:

- a) Deialdiaren eta poltsara sartzeko betekizunen publizitatea.
- b) Berdintasuna, betekizun orokorren eta lanpostuaren betekizun espezifikoaren arabera.
- c) Norgehiagoka eta lehia.
- d) Prozesuaren kudeaketaren gardentasuna.

II

HAUTAKETA PROZEDURA

Seigarrena. - Eskabideak aurkeztea.

Bat. Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak deialdi honetan xedatutako prozeduraren arabera izango dira eta telematikoki aurkeztuko dira, BIOEFen webgunearen bitartez, www.bioef.org, [enplegu eskaintzak](#) atalean, deialdian ezarritako epe barruan.

Adierazitakoa ez den beste bide batetik aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko. Beste bide batetik jasotako eskabideak ez dira erregistratuko.

Bi. Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, oinarri arautzaileak BIOEFen webgunean argitaratzen diren datatik zenbatzen hasita.

Behin izena emateko prozesua amaituta, hautagai potentzialak izen ematea behar bezala burutu izanaren egiaztatzea jasoko du.

Hiru. Hautagaiek telematikoki aurkeztu beharko dituzte, eskabidea aurkezteko momentuan, oinarrietan ezarritako betekizunak eta merezimenduak betetzen dituztela ziurtatzen duen dokumentazioa, VII. Eranskinarekin batera ("Erantzukizunpeko deklarazioa"), behar bezala sinatu beharko dena.

Dokumentazio hori aurkeztuko ez balitz, egiaztatu ez diren betekizunak edo merezimenduak ez dira ebaluatuko.

Hautagaia prozesutik automatikoki kanporatzeko arrazoiak izango dira, zuzentzeko modukoa den akats edo errorerik egon ezean: dagokion hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizunen bat ez betetzea edo betekizun horiek egiaztatzeke dokumentazioa ez aurkeztea.

Zazpigarrena. - Hautagaien onarpena.

Bat. Betekizunak bete izana: Hautagaitza aurkeztu duten pertsonak oinarrietan xedatutako eta hirugarren puntuan ("Hautagaien betekizunak") adierazitako betekizunak betetzen diren ala ez erabakitzea.

Bi. Kanporatze arrazoiak izango dira: dagokion hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizunen bat ez betetzea eta betekizun horiek egiaztatzeke dokumentazioa ez aurkeztea.

Deialdian eskatutako betekizun guztiak bete eta egiaztatzen ez dituzten hautagaiek ezingo dute gainerako faseetara igaro eta hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira.

Hiru. Onartutako eta kanpo geratutako hautagaien behin behineko zerrenda argitaratuko da, gehienez ere hilabete baten buruan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Zortzigarrena. - Zuzenketak.

Bat. Onartutakoen eta kanpo geratutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen den datatik aurrera, zuzenketa epe bat irekiko da, beharrezkoa balitz. Hamar egun balioduneko epea emango da dokumentazioa aurkezteko edo akats posibleen zuzenketa eskatzeko.

Bi. Zuzenketa epea amaituta, onartutako eta kanpo geratutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Bederatzigarrena. - Erreklamazioak.

Onartutako eta kanpo geratutako hautagaien zerrenda onartutzat emango duen behin betiko ebazpenaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea bost egun baliodunekoa izango da, behin betiko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hamargarrena. - Epaimahai kalifikatzailea.

Bat. Deialdia argitaratu eta hamar egun balioduneko epean, ezagutzera emango da epaimahai kalifikatzailearen izendapena.

Bi. Epaimahai kalifikatzailea honakoek osatuko dute: presidente bat, kideak eta idazkari bat (ahotsarekin baina boto eskubiderik gabe).

Hiru. Epaimahaiko kideen izendapenean barne hartuko dira dagozkien ordezkioak.

Lau. Hautaketa organoek beti jardungo dute banakako moduan eta ezingo dute beste baten izenean edo ordezkari gisa jardun.

Bost. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza jaso ahalko du aurkeztutako hautagaitzak ebaluatzeko beharrezkoa denean.

Sei. Epaimahaiaren izendapena inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioen arabera egingo da.

Zazpi. Epaimahaiko kideek bete egingo dute datu pertsonalen babeserako araudian xedatutakoa (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko, eta (EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, "Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra"). Helburu hauetarako, aipatu araudi hori betetzeko deklarazio bat sinatuko dute.

Hamaikagarrena. - Hautaketa prozedura.

Hautaketa prozedurak fase bakarra izango du:

I. fasea: merezimenduak balioestea.

Oinarrietan adierazitako merezimenduak balioestea. Gehienez ere ehun (100) puntu.

Edonola ere, euskara jakitea baloratuko da, eta hori egiaztatzeko kasuan kasuko hizkuntza eskakizunen ziurtagiriak edo haien baliokideak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek (V. Eranskina).

Hamabigarrena. - I. fasea: merezimenduak balioestea

Bat. Balioesteko merezimenduak izango dira:

Balioesteko moduko merezimenduak izango dira I. Eranskinean ezarritakoak.

Bi. Balioesteko moduko merezimenduen puntuazioa kalkulatu da I. Eranskinean ageri den baremoa aplikatuta.

Hiru. Dagozkien dokumentazioarekin egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko.

Hamahirugarrena. - Amaierako kalifikazioa eta lan poltsaren eraketa.

Bat. Amaierako kalifikazioa izango da merezimenduen balioeste fasean lortutako puntuazioa eta horren arabera ezarriko da lehen ordena.

Bi. Hainbat hautagairen arteko berdinketa gertatuko balitz, goragoko lanpostua hartuko duen pertsona nor izango den erabakitzeko, kontuan hartuko da esperientziaren atalean puntuazio altuena jaso duen pertsona. Berdinketak jarraituko balu, atal horretako puntuazioak antzekoak balira, kontuan hartuko da prestakuntzaren atalean lortutako emaitza. Berdinketak jarraituko balu, atal horretako puntuazioak antzekoak balira, kontuan hartuko da hizkuntzen atalean lortutako emaitza.

Berdinketak jarraituko balu, goragoko lanpostua lortuko duen pertsona izango da adin nagusikoa.

Hamalagarrena. - Behin betiko ebazpena

Bat. Kalifikazioa amaituta, eta hautagai bakoitzak lortutako guztirako puntuazioa kontuan hartuta, beherezko ordenean, argitaratuko da lan poltsa osatuko duten pertsonen behin betiko zerrenda.

Bi. Interesdunek bost egun baliaduneko epea izango dute, behin betiko zerrenda argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko.

Hamabosgarrena. - Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalen babeserako araudian xedatutakoa betez ((EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, "Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra" edo "RGPD", gaztelaniako akronimoaren arabera, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko), xedatu egiten da helarazitako datu pertsonalak

- BIOEFek tratatuko dituela datuak emateko momentuan emandako baimenaren arabera, oinarri hauetan xedatutakoari jarraituta.

- Datu horien tratamenduaren xedea izango da lan poltsa bat sortzeko langileen erregistro bat kudeatzea. Parte hartzaileek emandako datuak erabiliko dira, soilik eta eskusiban, oinarri hauetan aurreikusitako xedeetarako.
- Datuak tratatuko dira erregistroa indarrean dagoen bitartean (2 urte) eta, epe hori amaituta, BIOEFen erantzukizunen helburuetako eta BIOEFen jardueren kontrol helburuetarako legez xedatutako epean zehar ere. Halaber, eskatzaileak bere baimena atzera bota ahalko du edozein momentutan, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera.
- Eskatzaileak une oro jakin ahal izango du BIOEFek berari buruzko zein datu pertsonal tratatzen dituen, eta araudiak ematen dizkion eskubideak baliatu ahalko ditu helbide honetan: BEC Dorrea (Bilbao Exhibition Centre) - Azkue Erronda 1, 48902 Barakaldo (Espainia), NANA atxikita. Interesdunak eskubide hauek baliatu ahalko ditu:
 - Atzitze eskubidea: tratatuko diren datu pertsonalen inguruko informazioa ezagutu eta eskuratzea ahalbidetzen du.
 - Zuzentze eskubidea: akatsak zuzentzea, zehatzak ez diren edo osorik ez dauden datuak aldatzea eta tratatuko den informazioa egiazkoa dela bermatzea ahalbidetzen du.
 - Ezabaketa eskubidea: tratamenduaren objektu diren datuak ezabatzea eskatzea ahalbidetzen du.
 - Aurka egiteko eskubidea: datu pertsonalen tratamendua ez burutzea eskatzeko edo hura etetea eskatzeko eskubidea, legezko arrazoiak izan ezean, edo egon daitezkeen erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada, non epe batez blokeatuko diren lege-obligazioek irauten duten bitartean.
 - Tratamendua mugatzea: Zenbait egoeratan, interesdunek euren datuen tratamendua mugatzea eska dezakete. Kasu horretan, erreklamazioak jarri edo haietatik defendatzeko bakarrik gordeko dira.
 - Banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea (profilak egiteko barne): efektuak izan ditzakeen edo eragin handiak izan ditzaketen tratamendu automatizatuetan oinarritutako erabakien xede ez izateko eskubidea.
 - Datuen eramangarritasun eskubidea. Legez ezarritako egoeretan eta teknikoki posible denean.
- Datuen babeserako ordezkaria. BIOEFek datuen babeserako ordezkari bat du, indarrean dagoen araudia betez, eta harremanetarako eskuragarri dago helbide honetan: dpd@bioef.eus.
- Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko aukera. Halaber, BIOEFek jakinarazten dizu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (www.avpd.eus) edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es) ere aurkeztu ahal izango dela erreklamazioa, tratamendua indarrean dagoen araudiaren arabera egin ez dela uste baduzu.
- Oinarri hauetan xedatutakoa betez, zure datuak dagozkien zerrendetan argitaratu ahalko dira, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak ezarritako gomendioen arabera.

III**LAN POLTSAREN FUNTZIONAMENDUA****Hamaseigarrena. - Lan poltsaren iraunaldia.**

Lan poltsak bi urteko iraunaldia izango du, poltsa osatuko duten pertsonen zerrenda argitaratuko duen behin betiko ebazpenaren datatik zenbatzen hasita.

Lan poltsa berri baten argitalpenak kategoria bererako zegoen aurreko poltsaren indarraldia azkenduko du.

Hamazazpigarrena. - Lan poltsan osatzen duten pertsonen deitzeko araubidea.

Lan poltsaren barne egoteak, bere horretan, ez du inolako kontratazio eskubiderik sortuko. Eskubide hori sortuko da BIOEFek kontratazioa egiteko beharra duenean.

Bat. Hautagaien deituko zaie zerrendaren barruko ordena zorrozki errespetatuta.

Bi. Lan poltsa osatzen dutenek, hala eskatzen zaienean, hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuen jatorrizkoak aurkeztuko dituzte.

Adierazitako epe barruan, eta ezinbesteko kasuak salbu, lan poltsa osatzen dutenek ez badute eskatutako dokumentazioa aurkezten edo ez badute egiaztatzen eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela, ezingo dira pertsona horiek kontratatu eta jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, eskabideko faltsutzearen ondoriozko erantzukizun posiblea kaltetu gabe.

Hiru. Hautatutako pertsonari zuzendutako jakinarazpena egingo da, lehenik, telefonoz eta pertsona horrek 24 ordu izango ditu lanpostua onartzen edo errefusatzen duen adierazteko.

Epe horren barruan erantzunik ematen ez badu, kontratazioari uko egin diola ulertuko da eta, kasu horretan, zerrendako hurrengo pertsonari deituko zaio.

Dagokion hautagaiarekin kontakturik ezarri ezingo balitz, telefonoz gutxienez ere bi saiakera egin ondoren, egun eta ordu desberdinetan, idatzizko komunikazio bat bidaliko zaio, posta elektronikoz, interesdunari jakinarazpena egiteko. Interesdunak gehienez ere 24 ordu izango ditu onarpena edo errefusa jakinarazteko, posta elektronikoa entregatzen den momentutik aurrera.

Epe horren barruan erantzunik ematen ez badu, kontratazioari uko egin diola ulertuko da eta, kasu horretan, hurrengo hautagaiari deituko zaio, puntuazio ordenaren arabera.

Lau. Kasu bakoitzean, idatziz adieraziko dira erabiliko den kontratu modalitatea, kontratazioa justifikatzen duten arrazoiak, jardunaldia eta kontratuaren iraupena, ahal denean.

Hemezortzigarrena. - Hautagaiak uko egitea.

Bat. Deitu dioten hautagaiak justifikaziorik gabe uko egingo balu, zerrendan duen tokia galdu egingo du eta zerrendaren amaierara igaroko da. Bi deiri uko egiten dieten pertsonak, justifikaziorik izan ezean, automatikoki geldituko dira lan poltsatik kanpo. Egoera hori idatziz jakinaraziko da.

Bi. Eskaintza errefusatzeko justifikazioa badela ulertuko da eta, ondorioz, hautagaiari ez zaio baja emango lan poltsan, frogabide egokien bitartez egiaztatzen bada, kontratazio eskaintza egin eta hurrengo 24 orduetan zehar, egoera hauetako bat:

- Gaixotasun egoera batean egotea, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua. Gaixotasun bat izatea edo gaixotasun edo istripu batetik sendatzeko prozesuan egotea, dagokion mediku txostena aurkeztuta justifikatuko dena.
- Ezkontidearen edo bigarren gradura arteko ohol ahaidetasuna duen senide baten gaixotasun oso larria, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua.
- Baimen edo lizentzien helburuetarako indarrean dagoen araudian aurreikusita dauden egoeretako batean egotea, haurdunaldi, erditze, adopzio edo harrera kasuan edo senide baten gaixotasun larria dela eta.
- Amatasun/aitatasun atsedenaldian egotea.
- Eskaintza egiten den momentuan lanean egotea, lan bizitzaren txostena aurkeztuta egiaztatuko dena.
- Beste edozein arrazoi, behar bezala egiaztatuta, betiere zuzendaritzak onartzen badu.

Hiru. Aurreko atalean aurreikusitako arrazoietakoa baten ondorioz uko egingo balitz, behar bezala justifikatu beharko da ere arrazoi hori desagertu egin dela berriz ere lan eskaintzak jaso ahal izateko. Hala ere, lan eskaintza berri horiek lan poltsaren funtzionamenduaren arabera gertatuko dira, araudi honetan xedatutakoaren arabera.

Lau. Eskaintzari uko egin nahi izatekotan, VI. Eranskina bete eta posta elektronikoz bidali beharko da (bolsadetrabajo@bioef.eus), dokumentuan adierazitako egoera justifikatzen duen dokumentazioarekin batera.

Hemeretzigarrena. - Lan poltsaren egoerak.

Lan poltsa osatzen duten hautagaiak jarraian adierazitako egoeretako batean egongo dira:

1.- LIBRE: egoera horretan egongo dira aldi baterako kontratazio baterako deia jasotzeko zain dauden lan poltsako hautagaiak.

2.- AKTIBO: egoera horretan egongo dira oinarri hauen aplikazio eremuaren barne kontratatuta dauden pertsonak.

Langile aktiboak "libre" egoerara igaroko dira indarrean duten kontratua amaitu baino zazpi egun baliodun lehenago, betiere data hori aurreikusitako modukoa bada.

3.- EZIN AURKITUZKOA: ofizioz alta emango zaie egoera honetan euren helbide, helbide elektronikoa edo telefono aldaketa jakinarazi ez izanagatik posta elektronikoz edo posta ziurtatu bidez bidalitako jakinarazpenei edo telefonoz egindako deiei erantzuten ez dieten lan poltsako hautagaiei. Kasu honetan, hautagaiek ez dute inolako lan eskaintzarik jasoko. Ezin aurkituzko egoera mantendu egingo da hautagaiek haiekin harremanetan jartzea ahalbidetzen duten datu berriak jakinarazi arte.

4.- ALDI BATERAKO BAJA: aldi baterako bajaran egongo dira jarraian adierazitako egoeretako batean dauden pertsonak:

- Gaixotasun egoera batean egotea, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua. Gaixotasun bat izatea edo gaixotasun edo istripu batetik sendatzeko prozesuan egotea, dagokion mediku txostena aurkeztuta justifikatuko dena.
- Ezkontidearen edo bigarren gradura arteko ohol ahaidetasuna duen senide baten gaixotasun oso larria, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua.
- Baimen edo lizentzien helburuetarako indarrean dagoen araudian aurreikusita dauden egoeretako batean egotea, haurdunaldi, erditze, adopzio edo harrera kasuan edo senide baten gaixotasun larria dela eta.
- Amatasun/aitatasun atsedenaldian egotea.
- Eskaintza egiten den momentuan lanean egotea, lan bizitzaren txostena aurkeztuta egiaztatuko dena.
- Beste edozein arrazoi, behar bezala egiaztatuta, betiere zuzendaritzak onartzen badu.

5. - BEHIN BETIKO BAJA: behin betiko bajaran egongo dira euren borondatez eskatzen dutenek eta eskaintza bati uko egiten diotenek deialdi honetan adierazitako justifikaziorik gabe edo justifikazio hori egiaztatu gabe.

Atal honetan azaldutako egoerak justifikatzen dituzten arrazoiak desagertzean, hautagaiek aldaketa hori jakinarazi beharko diote, bost egun balioduneko epean gehienez, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioari. Hautagaiak jakinarazpen hori egiten ez badu adierazitako epe barruan, automatikoki igaroko da zerrendako azken tokira.

Hogeigarrena. - Gorabeherak.

BIOEFek baimena izango du agertzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa prozeduraren funtzionamendu egokirako diren erabakiak hartzeko.

Barakaldon, 2021eko martxoaren 4an.

Stua.:

Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa

Eranskinen zerrenda

- I. Eranskina: Baremo aplikagarriak
- II. A Eranskina: Laginen jasotzearen balioespena
- II. B Eranskina: Kultiboen balioespena
- III. Eranskina: Ikerketa
- IV. Eranskina: Prestakuntza
- V. Eranskina: Hizkuntzak
- VI. Eranskina: Uko egiteko idazkia
- VII. Eranskina: Erantzukizunpeko adierazpena

I. ERANSKINA

Baremo aplikagarria

Lanpostua: **Biobankuko DNA laborategiko goi mailako teknikariak**

1. **Titulua(k):** Betekizuna

Hautagaiak laborategi alorreko goi mailako prestakuntza ziklo baten (Lanbide Heziketa - LH) titulua izan beharko du, Hezkuntza Ministerioaren Lanbide Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Katalogo Nazionalaren arabera, jarraian adierazitakoen artekoa:

1.1_Analisi klinikoetako laborategia edo baliokidea

1.2_Analisi kimikoak edo baliokidea

1.3_Analisi bioteknologikoak edo baliokidea

1.4_Prozesu bioteknologikoen antolaketa eta kontrola eta zerbitzu bioteknologikoen garapena edo baliokidea

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Goi mailako prestakuntza zikloko tituluaren fotokopia (LH - Lanbide Heziketa).

2. **Esperientzia:** 85 puntu gehienez.

2.1_ II. A eta II. B Eranskinetan aurreikusitako lanetako esperientzia ebaluatuko da (gehienezko puntuazioa: 70 puntu).

0,0066 puntu emango dira lan bakoitzean jardunaldi osoko esperientzia egun bakoitzeko. Esperientzia biobanku batean izan bada, 0,012 puntu emango dira lan bakoitzean esperientzia egun bakoitzeko. Biobanku gisa ulertuko da jarraian adierazitako Errege Dekretuaren arabera onetsitako erakundea: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. Esperientzia lortu bada lanaldi partzialeko jardunaldien bitartez, dagokien zati proportzionala kontuan hartuko da.

2.2_ Osasun arloko I+G+b proiektuetako esperientzia ebaluatuko da, III. Eranskinaren arabera (gehienezko puntuazioa: 15 puntu).

0,20 puntu emango dira ikerketa taldearen kide gisa parte hartu den osasun arloko I+G+b proiektu bakoitzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- II. A, II. B eta III. Eranskinak, enpresako legezko ordezkariak edo ordezkari funtzionalak sinatuak (enpresako legezko ordezkariaren eta/edo haren erantzule funtzionalaren sinadura eta zigilua)

edo, horrelakorik ezean, betiere enpresak sinatutako dokumentua ez aurkeztea behar bezala justifikatu bada, interesdunak sinatuak, adierazitako datuen egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna hartuta.

Enpresaren edo haren erantzule funtzionalaren aldetiko ziurtagiria eskuratu ezingo balitz, horren arrazoiak behar bezala azaldu eta justifikatu beharko dira.

Aipatu eranskinak bi formatutan aurkeztu beharko dira: Excel eta PDF (PDF formatuak barne izango ditu Excel formatua eta sinadura).

- Lan biziak. Lan kontratu baten esparruan garatutako esperientzia bakarrik ebaluatuko da. Esperientzia hori kontuan hartu ahal izateko, ezinbestekoa da honela adieraztea: urtea, hilabetea eta eguna.
- Ikerketa taldearen kide gisa parte hartu den III. Eranskinean adierazitako osasun arloko I+G+b proiektu bakoitzaren egiaztagiria.

3. **Prestakuntza.** 10 puntu gehienez.

Ikastaro ziurtatuak, gutxienez ere 10 orduko iraupena dutenak eta II. A eta II. B Eranskinetan adierazitako lanekin lotura dutenak.

Egiaztatu ez diren ikastaroak edo 10 orduko beherakoak ez dira kontuan hartuko.

Egiaztatutako 10 ikastaro ordu bakoitzeko puntu 1 emango da.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- IV. Eranskina behar bezala beteta.
- II. A eta/edo II. B Eranskinetan adierazitako lanekin lotura duten ikastaroak egin izanaren ziurtagiriaren fotokopia.

4. **Hizkuntzak:** 5 puntu gehienez.

Euskararen ezagutza.

Euskararen ezagutza egiaztatuak (mailak V. Eranskinaren arabera):

- 0 maila/atarikoa: puntu erdia (0,50).
- 1 maila/tarteko aurrekoa/oinarrizkoa: puntu bat (1).
- 2 maila/tartekoa: bi (2) puntu.
- 3 maila/tarteko altua/aurreratua: hiru (3) puntu.
- 4 maila/aurreratua: lau (4) puntu.
- 5 maila/aurreratu gorena: bost (5) puntu.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Hizkuntzen egiaztapena dagokion maila egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulu akademiko bidez egingo da (V. Eranskinaren arabera: Hizkuntza ziurtagirien baliokidetasun taula).

II. A ERANSKINA

Nik, **izena, 1. abizena eta 2. abizena, xxx-A** NAN zenbakiduna, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN **ADIERAZTEN DUT** esperientzia profesionala dudala jarraian adierazitako arlo eta datetan:

Teknika molekular eta zelularrak	Erakundearen izena	Egiaztatutako biobankuak da?	Hasiera data uuuu/hh/ee	Amaiera data: uuuu/	Lan egindako eguna	Puntuak
DNA odolatik ateratzea (odola, buffy coat eta nukleo bakarreko zelulak)						
DNA listutik ateratzea						
DNA ehunetatik ateratzea						
DNA FTA txarteletatik ateratzea						
ADN PicoGreen bitartez zenbatzea						
Azido nukleikoak Nanodrop bidez zenbatzea						
RNA odol periferikotik ateratzea						
RNA izoztutako ehunetatik ateratzea						
RNA parafinaz estalitako ehunetatik ateratzea						
RNAren integritatea aztertzea						

Odolaren, serumaren eta plasmaren alikuotatzea						
Odol periferikoko nukleo bakarreko zelulak isolatzea						
Seruma isolatzea						
Plasma isolatzea						
Buffy coat delakoa ateratzea						

Eta horrela jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut Barakaldon, 2021eko, XXXXren (e)an.

Legezko ordezkaria

Ordezkari funtzionala

Langilea

(izen eta bi abizenak)

(izen eta bi abizenak)

(izen eta bi abizenak)

Eta enpresaren zigilua

Eta enpresaren zigilua

Stua.: _____

Stua.: _____

Stua.: _____

*Sinatu dagokion tokian

II. B ERANSKINA

Nik, **izena, 1. abizena eta 2. abizena, xxx-A** NAN zenbakiduna, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN **ADIERAZTEN DUT** esperientzia profesionala dudala jarraian adierazitako arlo eta datetan:

Teknika molekular eta zelularrak	Erakundearen izena	Egiaztatutako biobankuak da?	Hasiera data uuuu/hh/ee	Amaiera data: uuuu/hh/ee	Lan egindako egunak	Puntuak
Kultibo zelularrak sortzeko ehunen prozesamendua						
i-PS zelulen kultiboak						
Organoideen kultiboak						
Kultibo zelularrak mantentzea						
B linfozitoak hilezkortzea						

Eta horrela jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut Barakaldon, 2021eko, XXXXren (e)an.

Legezko ordezkaria

Ordezkari funtzionala

Langilea

(izen eta bi abizenak)

(izen eta bi abizenak)

(izen eta bi abizenak)

Eta enpresaren zigilua

Eta enpresaren zigilua

Stua.: _____

Stua.: _____

Stua.: _____

*Sinatu dagokion tokian

III. ERANSKINA

Taldeko kide gisa parte hartu den I+G+b proiektuen zerrenda

Proiektuaren izena	Proiektua garatu den zentroa	Taldeko kide izan zinen?	Finantzaketa iturria	Hasiera data uuuu/hh/ee	Amaiera data: uuuu/hh/ee	Puntuak

IV. ERANSKINA

Egiaztatutako ikastaroen zerrenda:

Ikastaroaren izena	Ikastaroa egin den zentroa	Zein da ikastaroaren eta II-A eta II-B Eranskinetan azaldutako lanen arteko lotura?	Ikastaro orduak uuuu/hh/ee	Hasiera data uuuu/hh/ee	Amaiera data: uuuu/hh/ee	Puntuak

V. ERANSKINA

Hizkuntza ziurtagirien baliokidetasun taula

1. maila/Atarikoa

A1 (HEO uneko plana)	HEO
1. maila (HEO plan zaharra)	

2. maila/tarteko aurrekoa/oinarrizkoa

A2 (HEO uneko plana)	HEO
2. maila (HEO plan zaharra)	
KET (Key English Test)	Cambridge

3. maila/tartekoa

B1.1 eta B1.2 (HEO uneko plana)	HEO
3. maila (HEO plan zaharra)	
PET (Preliminary English Test)	Cambridge
B1/PL1	
PL1 hizkuntza eskakizuna	
1 maila	HAB IVAP EJ E

4. maila/tarteko altua/aurreratua

B2.1 eta B2.2 (HEO uneko plana)	HEO
4. maila (HEO plan zaharra)	
First Certificate in English (FCE)	Cambridge
B2/PL2	
PL2 hizkuntza eskakizuna	
2 maila	HAB IVAP EJ E

5. maila/aurreratua

C1 (HEO uneko plana)	HEO
5. maila (HEO plan zaharra)	
CAE (Certificate in Advanced English)	Cambridge
C1/EGA/PL3	
PL3 hizkuntza eskakizuna	
3 maila	HAB IVA EJ E P

6. maila/aurreratu gorena

C2 (HEO uneko plana)
CPE (Certificate of Proficiency in English)

C2/PL4

PL4 hizkuntza eskakizuna

4 maila

HEO
Cambridge

HABEIVAP EJ

COMMON EUROPEAN FRAMEWORK	TOEIC	HEO	HEO	TOEFL	INGELES OROKORRA	NEGOZIOETARAKO INGELESA	IELTS	ALTE ESKALA
Europako Kontseilua	Test of English for International Communication	Hizkuntza Eskola Ofiziala (plan zaharra) 967/1988 ED	Hizkuntza Eskola Ofiziala (uneko plana) 1629/2006 ED	Test of English as a Foreign Language (COMPUTER BASED)	University of Cambridge	University of Cambridge	International English Language Testing System - University of Cambridge	Association of Language Testers in Europe
C2	951-990			281-300	CPE Certificate of Proficiency in English		7.5+	5 maila
	921-950			261-280				Aurreragoren
C1	831-920	5. MAILA		241-260	CAE Certificate in Advanced English	BEC Business English Certificate 3 Higher	7.0 6.5	4 maila
	741-830			221-240				Aurreratu
B2	621-740	4. MAILA	Maila aurreratua 2 B2.2	196-220	FCE First Certificate in English	BEC Certificate English Certificate 2 Vantage	6.0 5.5 5.0	3 maila
	501-620		Maila aurreratua 1 B2.1	171-195				Tarteko altua
B1	406-500	3. MAILA	Tarteko maila 2 B1.2	151-170	PET Preliminary English Test	BEC Business English Certificate 1 Preliminary	4.5 4.0 3.5	2 maila
	306-405		Tarteko maila 1 B1.1	131-150				Tarteko
A2	151-305	2. MAILA	Oinarrizko maila	81-130	KET		3.0	1 maila

					Key English Test			Tartek aurreko 0 maila Atarika
A1	0-150	1. MAILA		80				

Ziurtagiriak iraunaldirik balu, indarrean egon beharko du baremazioaren momentuan.

VI. ERANSKINA

Uko egiteko idazkia

Izena, 1. abizena, 2. abizena, XXXXP NAN zenbakiduna,

Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren (BIOEF) lan poltsako deialdian hautatutako pertsona izanda, idazki honen bitartez adierazten dut eskainitako lanpostuari **UKO EGITEN** diodala.

Jarraian adierazi dut uko egite hori justifikatzen duen ARRAZIOA:

Gaixotasun egoera batean egotea, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua. Gaixotasun bat izatea edo gaixotasun edo istripu batetik sendatzeko prozesuan egotea, dagokion mediku txostena aurkeztuta justifikatuko dena.

Ezkontidearen edo bigarren gradura arteko ohol ahaidetasuna duen senide baten gaixotasun oso larria, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua.

Baimen edo lizentzien helburuetarako indarrean dagoen araudian aurreikusita dauden egoeretako batean egotea, haurdunaldi, erditze, adopzio edo harrera kasuan edo senide baten gaixotasun larria dela eta.

Amatasun/aitatasun atsedenaldian egotea.

Eskaintza egiten den momentuan lanean egotea, lan bizitzaren txostena aurkeztuta egiaztatuko dena.

Beste arrazoi bat (egiaztatu beharko da eta zuzendaritzak onartu beharko du).

Egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi dut eta idazki hau sinatu dut dagozkion ondorioetarako, Barakaldon, 2021eko xxxren xxx(e)an.

Stua.:

Behar bezala justifikatu beharko da arrazoi hau desagertu egin dela berriz ere lan eskaintzak jaso ahal izateko. Hala ere, lan eskaintza berri horiek lan poltsaren funtzionamenduaren arabera gertatuko dira, araudi honetan xedatutakoaren arabera.

VII. ERANSKINA

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
OBLIGAZIOAK BETETZEA EGIAZTATZEA**

LANPOSTUAREN IZENA	
-----------------------	--

HAUTAGAIAREN DATUAK

1. abizena	
2. abizena	
Izena	
IFZ/Pasaporte zk. (*)	
Helbide elektronikoa	
1. telefonoa	
2. telefonoa	

HELBIDEA

Kalea eta zenbakia	
Posta kodea	
Udalerria	
Probintzia	
Herrialdea	

(*) Ziurtatu ongi idatzita dagoela eta jatorrizko nortasun agiri nazionalarekin edo pasaportearekin bat datorrela, izan ere, zenbaki hau erabiliko da ohiko moduan zure identifikazio publikorako, zure pribatutasuna babeste aldera.

Idazki honen bidez **eskatzen dut gorago adierazitako hautaketa prozesuan sartzea** eta, **helburu horretarako**, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT, **deialdiaren oinarriak erabat ezagutu eta onartuta, bertan eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala eta emandako datuen eta dokumentuen egiazkotasunaren erantzukizuna onartzen dudala.**

HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK:

IFZ/Pasaportearen fotokopia

Barakaldon, 2021ekoren.....(e)an.

(Sinadura)

Datu pertsonalen babeserako araudian xedatutakoa betez ((EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, "Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra" edo "RGPD", gaztelaniako akronimoaren arabera, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa), jakinarazten da zure datu pertsonalen tratamenduaren xedea izango dela lan poltsa bat sortzeko langileen erregistro bat kudeatzea. Parte hartzaileek emandako datuak erabiliko dira, soilik eta eskusiban, oinarri hauetan aurreikusitako xedeetarako. Zure datuen inguruan baliaitu ahalko dituzu atzipen, zuzenketa, ezabaketa eta aurkaratze eskubideak, tratamenduaren mugaketa eskubidea, banakako erabaki automatizatuen mende ez egoteko eskubidea eta datuen eramangarritasunerako eskubidea.